Deunen bixitza

Josu'ren Terese Deuna

men zoli-argiaren eta biotz andi-mai
en jabe izan zan ziñez Josu'ren Te-
deuna. Geroko deuntasun andiaren ikuŕ
iendrua gasterik emon eban Terese-
Ziñopen edestiak eta batez be nes-
gasteenak irakuŕiaz, goiko sugaŕak
eutsan biotza ta berealaxe sortu ya-
baŕenean ziñopa izateko guraria. Zazpi
oa zala ta anai nagusitxuago lagun
gurasoai ezer esan barik, onein etxea
ta an doa. Aprikarantza neskatile ado-
Jaunaren opar eta deduz bere za-
odola ixuri beaŕ ebela-ta. Neba
ak bidez yoazala, osaba batek aur-
dauz eta aziraka egiñaz, gurasoen
daroaz. Oŕetara beaŕtuaz, osabeak
andia kendu dautsala-ta negaŕ dagi
zuk, eta ukaŕaren eta beste egite
oren bidez Jaunari oŕen ordaña emo-
egintzen da. Gaste zala il yakon Te-
bere ama. Orduan Andera Miren
at arturik, Ama amultsu ta samuŕa
akiola biotz-biotzez daskatsu ta ze-
Amak bere babespean artzen dau.
ra osoan epeladi bi baño ez ebazan
Terese deunak: lenengoa gurasoen etxe
zala: bigaŕena, bere burua lekaime
ta gerotxuago. Eŕubagako idoŕaldi
bal izan eban Teresek, lekaime zala,
maitasuna, zindo ta sendoa zan ala
teko, Jaunak laketuriko idoŕaldia;
andun epelaldirik ez eban iñoz izan,
ko biok izan ezik. Ogei urtegaz
laŕen lekaimetxera doa ta onein so-
arturik, karmeldaŕ egiten da. Ama-
urte luzez gexorik, neke min, oña-
ziltzaldi gozorpean bizi da, Jaunak
laŕean be saŕi emoten dakian goi
izpi barik, idoŕaldi itzalean: baña
eta kemenez, Jaunagazko maitasu-
rtsuago, bero ta gartsuago egiñaz.
ru-onoimenez aberats dau lekaime
ek bere betiko osasuna ezeze enpa-
tiena be ardura zoliz egin nai dau.
onetan Jaunagazko maitasun biziak
maitasun oŕek bultz egiten dautso.
daŕak ziran baño zindo, zintzo ta
ak egin nai leukez eta ori jades-
Jaunaren iragarpenez eta IV Pi Doi-
n onespenez antxiñako karmeldaŕ-
di ertsi-zorotza aŕerazten dautse le-
lekaimeai, gero lekaideai be bai. On-
karmeldaŕ ortozen irasle dogu Tere-
en asmu onak Goiko Jaunaren ones-
a berazizko laguntza ba eukezala ar-
si zan. Eskuarterik, ez eukan Nes-
anderak, luŕuko andi-mandiak saŕi
egiten eutsoela be, aldi gitxi baŕu
etxe eregi ta irasi ebazan batean
Eleizatik ataz egozan gizasemea-
eŕuki biziak biotz osoa artu eu-
Terese deunari. Orein ilundi ta zori-
den bako negaŕez deitoratzen eban,
aren aseŕea baretu ta goiko eŕu-
teko, bere oñaze andiak saŕi es-
eutsozan Jaunari siñeste bakoen

bidean auŕera yoyan Terese uŕats
Soñez makal eta gexoti ebilan;
ori gora-bera bere buruari nekeak
eban iñoz itxi. Kisto'renak di-
-diño Paul bialiak—euren aragia ezi
tzean josi dabe, ta Terese deunak
tez, katez, asun-txortaz eta zigoŕez
astindu ta nekalduaz, bere burua
eri ta Kisto'gaz gurutzean josi eban
an zorotz aŕtean iraulka be saŕi ibi-
n, Jaunari esanaz; edo jasan edo
ketan egoala argi bizi ta atsegin
emoten eutsozan Jaunak: senciik
konorgatuta otoitzaren gorengo

malara igon oi zan eŕeztasunik andienaz eta autualdirik ezti-gozoenak euki eroyazan Josu, bere Jaun laztanaz. Esku bete zeregiñaz bein ona, bein ara ebilan Terese; baña zeregiñok gora-bera gogoa gora jaso ta Jaunagaz bat eginda erabilan beti. Luŕeko aukera ta atsegiñak zimauŕa bano gitxiagotan eukazan Terese deunak. Luŕean bizi beaŕak iguin eta atsekabea emoten eutsan eta Paul deunagaz esan eroyan: Albait lasteŕen il eta Kisto'gaz egotea, orixe nire gurari bakaŕa. Betiko bizitzearen ituŕi dan Jaunagandik uŕun zan bitaŕtean, eriotzarik eŕukaŕienaz ilten egola eritxon. ¡Bizitza onen gogoŕa!—esan eroyan saŕi—¡nire gogoa baŕenen daduken espetxe ta burdin onein batza! Eriotzeari itxaroten egon beaŕak oñazerik zorotzena damost: ori dala-ta, ilten enazalako, beti ilten nago.

Etorkizuna igazteko argiz eta beste goiko emaitz bikañez aberastu eban Jaunak Terese. Eskaŕ eta mesedeak Tereseri egiten esku-zabal ibili zan Jauna; baña biotz zabal Terese be Jaun laztanagaz. Autor-entzulearen aginduz liburu asko ta ederak, goiko jakituriz beteak idatzi eban lekaime onek, orduko ta geroko kistaŕai Jaunaren bideak irakasteko. Buru argia baizen biotz andia be ba eukala liburu oŕeik argiro darakuse.

Sutegian sartutako burdiña baizen bero egoan Terese'ren biotza Jaunagazko maitasun-gaŕez. Eta gar onek beti izegi ta bizi iraun egiantzat, biotza gezi goriz igaro ta zulatu eutsan Jaunaren aingeruak. Maite be maite eban Terese'k Josu Jauna; Josu'k be bai Terese, bere ezkona. Abestutako liburuan aitatzen dan ezkon maitearen antzera, maitasun-ardaoz birloratuta egoan Terese eta Jaunak lekaime zintzo onegaz ezkontza atsegiña nai izan eban egin. Egun baten Jaunak bere eskua luzatuaz diñotso: ¿Zu nor zara? —Ni Josu'ren Terese—diñotso karmeldaŕ leikaimeak. —Ba ni Terese'ren Josudarantzutso Jaunak. Neure zarean oŕek auŕerantzean nire dedu ta aintza benetako ezkona lez jagongo dozuz. Osoro Jaunarena izan eta beti Jaunagaz egotea baño beste asmu ta amesik ez erabilan Terese'ri, luŕeko bizitza zirtxin au latz, mergatz eta gaŕatz egiten yakon. Neu gan bizi enazala bizi naz eta ditxarodan bizitza bikaña dala-ta, ilten enazalako, ilten naz. Gexoaren indaŕez baño obeto jasan ezindako maitasun-gaŕez Alba'n il zan Terese 1582'gaŕen uŕtean. Il baño len aolkurik ederenak emon eutsezan bere alabai ta eraspenik samuŕenaz aŕtu ebazan eleizakoak. Jauna Terese'ren gelan saŕtu zanean, gexoaren indaŕez eratsita egoan aŕen, adorez jagi zan Terese ta bere Josu laztanari esan eutsan: Erdu Jaun ori, erdu ezkon maite ori: ni erbeste onetatik Zugana joateko ordua, noz edo bein eldu da. Erbeste au luze yat, benetan luze. Zu ikusi ta Zugaz egoteko neukan eta daukadan gurari bizi au; aldi luzez, biotza erdibitu daustan gurari gartsu au, oraintxe ase ta beteko da. Ori esanaz eta eskuetan eukan gurutz-irudian begiak ezaŕiaz, uso - zuri auzo egatu zan Jaunagana Terese'ren gogo andi, kementsu, deuna, eta garaitza bikain oŕen ezaugaŕitzat loratu egin zan gela ondoan egoan zugatz idoŕa be. Bizitzan eta eriotz-ostean egin ebazan alatzak zirala-ta, XV. Gergori Doipuruak ipiñi eban deunen-zeŕendau karmeldaŕ ortozen irasle ospatsua onen izena. Ba dira iru onoimen-diño Paul bialeak: siñesmen, itxaromen eta goi-maitamena: iruretan andiena goi-maitamena da.

E.'TAŔ J.

ERRIJETATIK

MAÑARIA

JOSU'REN BIJOTZA'REN AINTZAZ
go barikuban Josu'ren Bijotz gozu-
opaz Jaunaŕtziak eta otoitzak egin
¡Aintza Bijotz Deun-deunari!
PIARA.—Astaŕte goxian Aŕinda'taŕ
Salome "Azkoti-Erdikoa" basetxe-
anderea, "Anguŕeta,,'ko aŕobitik jausi
ri-mokil batek buruan jota il egin

itxaŕ ilun onek negaŕ eragin euskun.
e andera on eta zintzuaren erijotza
k gustijok tamaldu gaiuz ta, Jaunak
n euki begi, Sendijari atsekabian la-
en dautzogu.
ZKEL-IXENAK. — Miren Begoñe
l-ixen edeŕak ezaŕijaz egubaztenian
zan eban Arteaga'taŕ Eusebi ta Bilbao
Paule'ren lenengo umia Aia-amabitxi,
aga'taŕ Nikola ta Ortuoste'taŕ Jokiñe
tiran.
Zorijonak euzko-guraso ain onari; ta
n Begoñe neskatotxua, eurak lako
tzale zintzo zintzua ixango al-da. Zo-
nak ba, ta auŕera!
ERIJOTZA.—Igaroriko asteko bariku-
il zan Betia'taŕ Margarite "Etxebaŕi
baŕna" basetxeko anderea. 84 urtedun
Jaunak zeruban euki begi Margarite
ren ona zanaren gogua.

Sendijari atsekabian laguntzen dautsogu; batez be ildakoaren semia dan Agiŕezabal'daŕ Eukeni'ri.

JUAN-ETOŔIJAK. — Bilbao'ra juan zan Zabarte'taŕ Bedite neskatila.

—Laŕabetzua'tik etoŕi zan Baŕenetxea'taŕ Aurkene neskatila, bere loba Gotzontze'gaz.

—Ermua'tik, Zugatzagoŕia'taŕ Eupeme.

—Astaŕtian egon zan emen Untzalu'taŕ Miren anderea Areŕio'ren alarguna.

—Ondaŕoa'tik etoŕita, emen aurkitzen dira aldikadatxu bat igaroten, Ugartetxea'taŕ Benin'en emaztia dan Egiguren'daŕ Miren eta Etxebaŕia'taŕ Elixabete emakume zintzuak. Baŕa, Ondaŕoa'tik ona-osteratxu bat egin dau Markuerkiaga'taŕ Miren abeŕkide zintzuak be.

URKIOLA'N. — Igandian, Urkiola'n, "uŕijena" ereisten dautzagun jaya ospatu zan. Ori zala ta, lagunik asko bertaratu zan. Geyenak taŕantez juan ziran. Eta emeko aguratxu batek, taŕantetan ainbeste jente juaten ikusiŕa, ben-ben esan eban "Lenagokuak, euren juan-etoŕi gustijak oñen-ganian egiŕen ebezan; ta oraingoak ostera, eperdi-ganian... Eztago'la dirurik? ¡Bayagok bai...!

AGUŔTU.—Igandian, Urkiolarantza jayazala aguŕtu genduzan emen Aŕupe'taŕ

Joyeria-Plateria-Relojeria
INSTRUCCION Y
REFORMA DE ALHAJAS
...pl. 10 — DONOSTIA
ARIETA BITXIZALEA
Bitxitegia-Zillartegia-Gabeukaztegia
BITXIAK EGIN ETA
BERRITZEN DITU
— Urrutizkiña 13.777 —

Jesús Ostolaza
BERGARA
FABRICA DE INSIGNIAS
DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO
IKURRIÑEN OLEA

"BIYONA" LUGINTZA ETXALDIA (Irun, Tlno. 313)
...gallinas de "Leghorn" con sus nidos contadores de huevos Venta de huevos para incubadoras polluelos y pollas de tres meses.

EIZARA'KO SUIZKILLU (ESCOPETA) OLEA
LEGARRISTI Y COMPAÑIA
SORALUZE (Placencia de las Armas) — GIPUZKOA

MUEBLES GOIKOETXEA
ERRENTERI (Gipuzkoa)
...Eredixa)

El mejor jabón para
el lavado de la ropa.
Tiene abundante espuma
y mucha duración
"BILORE"
Zoñekoak garbitzeko
jaboi-rik onena.
Bitxa ugara dauka ta
iraupen aundiagoa.

Pantzeska, Bengoetxea'taŕ Benin eta Kobeaga'taŕ Narkiz, Mikel eta Joseba Mirena Ereño'ko abeŕkidiak.

GAZTANIA.—Igaz baño askoz geyago aurten. Gaztañia, baseŕitaŕentzako negubadirako igali onuratsuba ixaten da Urtiokaz or-emen gastañondo asko igaŕtu diran aŕen, ondiñokaŕen eŕi ontan zugatz asko dago zutik eta edeŕ.

IRA-EBATELAK.—Lengo egun edeŕetan, emen inguruko mendijetan ira-ebatela asko ikusten ixan dogu. Ganoste-mendijan batez-be. Mendi edeŕ oŕetakuak, beti lez umoretsubenak. Eurein abeste alai ta ujujuak, larunbat iluntzijetan berariz poztuten gaŕubez. ¡Baŕiketarik eta guzuŕik ekaŕten dabez baŕiz!

Irata-aldijan, Mañari'n, ezertxo be ezin leike zinistu; guzuŕa, guzuŕaren ganian ibilten dalako. Or goiko txabolaren baten baŕi-asmatzela bizkoŕen batzuk ba-dagoz... ¡Onako sasi-berezirik!

IXAŔEN DANTZAKETA.— Astelen gabaz, zeruan ixaŕak gaste artegien antzian olgetari ageŕtu ziran. Eta batera ta bestera ziaŕ-ibilte poliŕak egiñaz, goya, zoragaŕiro apaindu eben. Ikustia, atsegiña zan. Guk txikiŕan, olako edo antzerako ixaŕen-igikunari "Ixaŕen dantzia" ereisten geuntzon. Eta oŕetzaz ¡zelako ipuñak edestu! Ona emen olako ume-bertzotxo bat.

"Ixaŕ-dantzia zeruan
oyal urdiñen ganian,
Birkiña Ama tornuan
aingerutxuen erdijan."

MAÑARIKO.

LAZKAO

EUZKEL - IZENA. — "Enparantzadi" baseŕiko, Eizagiŕe'taŕ Balendin'en emazteak, abeŕi-baratzari, eskeñi dion liliari Miren Arantzazu, euzkel-izen oegikoa ezaŕi diote ugatzatzean. ¡Zorionak Balendin!

IZPAR NEGAŔGARIA. — Auntzaren zai ebilela, Alo (Nabaŕa)'ko, belbil batek bi iztaŕak apuŕtu eutsozan San Gregorio'ko (Ataun) "Estanco,,'ko etxekoandrea dan Barandiaran'daŕ Miren Andone'ri Lazkano'ko Pilipa kamineroaren aŕeba: Andere gaxoa lasteŕ il zan. Laguntzen diet, atzekabean, bere senide ta sendikoai, ta zuk irakuŕle otoitz bat, bere gogo aren alde: ¡Agurtza Donearen Amak euki beza bere altzoan!

DABILTZANAK.—Gurekin udara Igaro ondoren Madrid-adera juan dira, Lasa'taŕ Joseba Mirena, kanonigo jauna, ta Lasa'taŕ Ermenejilde ta Bula, uriko sendagile aren osaba ta aŕebak. Aguŕ.

—Donostia'tik etoŕi da, Murua'taŕ Nikola, abeŕtzalea, ongi etoŕija.

LUGINTZA.—Gure baseŕitaŕak gogoŕ dabiltz, soroko lunetan, sagaŕ biltzen, aŕto zuritzen eta abaŕ... auŕten uztaro (cosecha) edeŕa dutela ta alai dabiltz. Ori ondo da:

Auŕten, oek diote,
ganbara beteko dutela uztaro edeŕez.
Ta ez dirala izango,
uŕte batzuetan lez, negaŕez.

Oek izenagaitik,
urtarorik asko.
Ala ere kaletaŕol ez diote
debalde emango ezer asko.

"LAUAXETA,,'RI.—Igaro dan astean, bialitako iru idazkiak, zeŕgaitik ez dira aŕgiratatu lekurik ez ala?

ELGOIBAŔ'KO "AIXERIXA,,'RI.—Zorion biribil biribilak, euzkaldun jatoŕak bezela jokatu dezulako. Ta ia "Garbinetxo", egiten dezun, zeu lez, idazle ta abeŕtzale jatoŕa entzun.

"Aldatz-pe", "Gaste-bat", "Onalde", "Zugatzondo" "Aldatz-buru" ta "Eloŕdi" idazle lazkaotaŕak, zeŕ geŕtatzen zaizute, ¿eŕdoyak jo dizue idazkoŕtza, ala...?

IRAMENDI.

ZEANURI

AUTU DIRAN PELOTARIJAK. — "Bizkai'ko - Batzokijen - Pelota Batza'k" gertauriko txapelketara auŕkestu biaŕ daben pelotarijak lau dirala esan genduban igaz dan igandeko izpaŕ-txortatxuban. Batzoki'ko bazkidia ixan biaŕ daben legez, autu diran jokalarijok onexek dira.

Oleaga'taŕ P. eta Puxana'taŕ Josu (Jokolari) Oleaga'taŕ J. eta "Txiŕi" (ordezkotzat).

Batzokijak bere lana, eurak ixentautiagaz bete dau, baña orain, jokolarijok, Batzoki eta eŕijaren ixenean txapelketa gogoŕ oŕetan auŕkestuko diran ezkero, biaŕ-biaŕekotzat ipinten dautsegube eŕijaren ixena eta euren jokua goralduten alegin gustijak egin dagijezala.

NASKALDIJA.—Madrid'etik egun batzuk geure aŕtian igaroten etoŕita auŕkitzen dira Emaldi'taŕ Koldobika, albaiter-ikaslia, eta bere anaya Mikel osagile-ikaslia.

Laguardia (Araba)'tik Arana'taŕ Todor eta Martiñe.

BATZOKI'KO GORA-BERAK.—Euzkel-abestijak eŕijan zabalduteko, igandero batzokira ume gustijai dei-egiŕen yake. Orain aŕte etoŕten diranak ainbat ixan aŕen sari edeŕan euren aŕtian zaba'duko diran ezkero al daben gustija etoŕten alegindutea gura geunke.

Bijaŕ asi ta gaba edo ilunkera gustijetan, lengo igardean ixentau gendun eran, ikastolak, zabalduko dira gura daben, gustijentzat.

EZKON-DEYAK.—Igandean joan ziran bitzuben azkenengo ezkon-deyak. Batzuk Ozerin'daŕ Josu eta Yuŕe'ko Amuritza neskatileanak. Besteak Igaŕua'ko Baŕenetxea'taŕ Jon Otxandiano'ko neskatilе bategaz. Zorijonak.

ANTZEŔTI-JAYAK. — Gertakixunak amaŕuten badira eta "Lauaxeta" jaunak, eskaturiko bat, bialduten badausku, datoŕen igandean jai polit bat "Landeta-goikua" etxean egiŕeko ustia dago.

Eguraldijak be euritsubak egiŕen dabezan ezkero, Zeanuri'taŕ gustijak aratsalde alai bat igaroteko tokija ixango dabe. Lenengo egin zan jaya ain edeŕto eretxi eta eŕirik eŕi dabiltzanak ikusten Uŕaburu'n zelaira danok etoŕi ezkero, ¿datoŕen igandokora nor geldiŕu etoŕi barik?

ZEANURI'KO BIZTANLIAK.— Auteskundeak egiŕeko eguna uŕeratubaz doyazala ta eŕiko biztanliak argitaŕdutea gogoratu yat. Geyenak ez-jakinian egon eta daŕak iŕaun au egiŕen dabelako or doyaz zenbaki oŕeik:

Biztanle gustijak: 1.333 emakume eta 1.397 gixon.

Botoa daukenak: 706 emakume eta 684 gixon.

Zenbaki oneik ikustian, emakumeri ondo esaten asi biaŕko dogula gogoratu yat. Baŕa, bakez eta eurari ondo esaten bagabiltz ondo ixango yaku. eta txaŕean asten bagara, eŕijan euran geyago diran ezkero eŕijaren yabe egiŕeko eskubidian dagoz.

Kontuz... mutilak... kontuz... ¡Etxagok bilduŕik! Sukaldia, be, naiko dok.

AŔEGI'TAŔ BAT.

Uaŕa.—Voto, euzkeraz, autaŕki.

NATXITUA

NATXITU'KO GASTIOK, ENTZUN Erkiaga'taŕ Koldobika adizkide ta lagun ona ixan da beti guretzat. Orain badakixube ezbiaŕ bategaz dagola, piñutik jausiŕa ezetarako gauza eztala urte bi onetan. Osagile askok ikusi dabe baña osakairik eztago. Orain Goiko Jaunari eskatu biaŕ yako osasun ori ta Natxitua'ko gastiak biartubak gagoz otoi-egiŕen. Bederatziuŕena egingo dogu Miren Neskutza'ren oinetan. Dei au egiŕen dautsegu Ea'ko abeŕtzaliai be Olan ditxarogu.

JAYOTZAK. — Au da euzkotaŕtasun edeŕa. Izpaŕingi onetan idatzi nebanetik bost, jayotza ixan dira ta bostak euzkel-ixendunak.

Aranburu'taŕ Sotera ta Bilbao'taŕ Tome'ren alabitxubari Miren Gentzane; Otzamiz'taŕ Joseba eta bere emazte Josebe'renari Miren Begoñe; Aŕizabalaga'taŕ Elene eta Garate'taŕ Kepa'ren alabeari Miren Aintzane; Basteŕetxea'taŕ Koldobika eta Intxausti'taŕ Lonarte'nari Miren Arantzazu eta Erkiaga'taŕ Todore ta Azurmendi'taŕ Andoni'renari Miren Gotzone.

Au da edeŕtasuna benetan. Zorijonak egiŕen dautseguz euzkotaŕ sendi zintzo zintzo onei. Euzkadi azkatuteko erea aure da.

BATZOKIJA APAINDU. — Atxabal'daŕ Julene ta Ugaŕitza'taŕ Benine emakume begikuak doguz. Geure eŕi ta batzokijagaŕik alegindutеn dira ondo. Batak argi-auŕe edeŕa ta bestiak erloju on-ona emon dabez batzokirako. Ugaŕitza andereak iges -egin dausku Donostia'ra eta Atxabal'daŕ Julene'k ostera Madrid'era jo dau bere seme-alabakin. Aguŕ emakume gorengaŕi oŕeik. Ondo ibili zadixe atzeŕijan eta arin geure aŕtera etoŕi.

DABILTZANAK. — Egotalditxu bat egin ostian aldendu yaku Urbi'ra Uriarte'taŕ Emilen abeŕtzale zintzua. Ferrol'dik etoŕi da Uriarte'taŕ Sabin.

Ara bidalduten ixan dautsez "Jagi-Jagi", "Euzko", "Amayur" eta abaŕ eta nor dan eztakijan ezkero eskaŕak egiŕen dautsoz izpaŕingi onen bidez.

Ondo etoŕija.

KURUTZE-GANE.

Uaŕa.—Natxitua'ko abeŕtzaliok kia darabile gero euzkel-ixenak jaŕten. Goraldu biaŕ doguz olako sendi abeŕkoyak. Sei txakuŕen konturik eztakit zer dan be. ¿Ze baŕaban dozu, ba?—L.

LASARTE

¡ROMA'RA! — Datoŕen udabeŕirako Euzko-Alderdi Jeltzaleak Roma'ra eratzen duan bidezkundean (peregrinación) jun nai dutenentzat oraintxe garai bikaña!

Batzokia'k 350 edo 400 zenbakidun txaŕtel peseta bana salgai jaŕiko ditu ta guziak saldutakoan zozketa, bildutako diruarekin zozketan saŕtu diranetatik bat Roma'ratu dedin.

Txaŕtelak salgai jaŕitakoan gai onetzaz zetasun geigo emango degu.

GUDARITZA. — Igandean Donostia'n izandako soldaduzkarako zozketan emengo gaste batzuk ere baziran eta ona emen beroyentzat zozketak emandako erabakia:

Ilaŕeta'taŕ Andoni ta "Etxetxuri" baseŕiko Elola'taŕ Joseba, azke.

Vila'taŕ Mikel, Ubegun'daŕ Joseba, "Zabaleta" oaseŕiko Erauskin'daŕ Jon Mirena ta Desosa'taŕ Julen, España baŕurako, ta Martin'daŕ Jakinda Africa'rako.

Azke gelditu diranai zorionak eta bestiai gudaritza (soldaduzka) on-ona opa diegu.

ELEIZKIZUNAK.—Oi bezela uŕila il ontan egunero, gabeko saspiretan aguŕtza donearen elizkizuna egiten da eliz nagusian.

A-BI.

DURANGO

KARLATAŔAK.—Igandian ageŕtu zan nire idazkijak min-emon eutzala-ta "afiladore" eŕegezale bat juan yakon gustiz asaŕe "Gogoŕa" idazle ezagunari, berak idatzi ebala-ta, idazki aren azalpena eskatuten. Au entzutian ikaratuta geldiŕu nintzan; orain aŕte uste neban, iru edo lau abeŕtzale euzkeldun ixan ezik, iñoŕk be ez-ebala irakuŕten nire idazkirik baña orain ikusten dot ez-dirala bakaŕik aoeŕtzaliak bada karlataŕak eta "afilaooriak" eurak be irakuŕi ta uleŕturen dabezala ta au jakiŕian aŕtu dodan poza ezta poz makala ixan. Onelako irakuŕliak daukadazala jakin ezkero asko be atsegiñago ixango yat auŕeruntzian idaztia.

Baña ¿ze zijo ete daukazube oŕen asaŕe egoteko nire idazkijagaŕik? ¿Ez ete da ba egija an esaten neban gustija? ¿Noz zuben "casiñuan" euzkel-abesti bat entzuten da "Gernika'ko arbola" ori ixan ezik? ¿Noz antzestu dozube euzkel-antzeŕki bat? Nire gomutan sekulan bez eta auŕeruntzian egiŕeko itxurarik bez.

GEXORIK.—Aspaldijan gexorik aurkitzen dira Garamendi'taŕ Miren Koldobika ta Zumaŕaga'taŕ Jone anderaño abeŕtzaliak.

Baŕa be gexoŕik dago Arabiotoŕe'taŕ Gotzon jaupari unkoya.

Jaungoikuak biuŕtuko al-dautsoe len-bai-len osasun osua.

ZORIJONAK. — Bijotzez damotzeguz Azkuna'taŕ Gotzon, Azpiritxaga'taŕ Eŕikarta eta Eloŕiaga'taŕ Joseba Koldobika abeŕkidiari, gudaritzarako igandian egin zan zozketan azke uŕten ziralako.

NASKALDIJA. — Lexona'tik etoŕita emen aguŕtau genduban Untzalu'taŕ Amketa jaupari leyala.

Itxasaldian aldi luze bat egin ondoren eŕiratu dira Zurikarai'taŕ Pantzeska ta Laka'taŕ Kepa abeŕkidiak.

Habana'tik etoŕi da Maguregi'taŕ Peli mutil gastia.

Mexico'tik Garaigordobil'daŕ Gaizka.

Cambo'tik, Rodriguez Mañarikua'taŕ Emili jaupari agurgaŕija.

KOLDOBIKATAŔAK. — Durango'ko koldobikataŕak, euren aretuaren onespena ospatuteko jai batzuk egingo dabez il-onen 22'gn. Goxian jaunartze orokoŕa, jaupa nagusija ta aretuaren onespena Eguberdijar oturuntza ta aŕatsaldian lau izlari gastek itz egingo dabe, bik euzkeraz eta bestе bijak eŕderaz. Ara oŕ koldobikataŕen bazkun-aŕtezkarijak bidaldu dauskun idazkija:

"Durangaŕok: Uŕila, il-onen 22'gn., Gontzaga'taŕ Koldobika donearen kongreganteok, J. L., Kurutziaga 4'eko areto baŕijaten onespena dala-ta, jai aundi bat ospatuko dogu.

Zuetariko asko kongregante zarie ta ez gitxi lenago ixanak; eta gauŕ Ama Neskutzarenganako maitasuna zuben ariman ain saŕtua eta bijotza kristiñau-gogoz oŕen betea nabaitzen ba dozue, orain kongregante zintzo eta duin ixatia edo zuben gastearoan ixatia Ama on oŕek saritu dautzuelako dala esatia, ez deritxogu geyegi.

Kongregantiok: Orain zarienok eta lenago ixanok: Josukistok kurutzetik emon eutzuen Amaren duin-eko egun bat ospatuteko geŕtau zaŕeze".

IBAIZABAL.

GALDAKANO

EZKONTZA.—Uŕen datoŕen azila'rako geŕtu dabe ezkontzia. beŕtoko abeŕtzale zintzua dan Otxoa'taŕ Alberta, San Miguel'eko Toŕealdai'taŕ Deñe neskatila zoliiakin

Aŕtu begijez nire zorijonak auŕeratutik.

JUAN ETOŔIJAK.—Zaragoza'ra alditxu bat igarotera juan da Ugaŕte'taŕ Joseba, beren emazte dan Barandika'taŕ Pantzeske'kin. Ondo ibili.

EUZKO-IKASTOLA BIAŔ.— Euzkotaŕ gustijontzako biaŕ-biaŕekuak dira euzko-ikastolak, geure ele maŕia ikasi goraldu ta toki gustijetan euzkeraz itz-egiŕeko. ¿Zer jazoten da oin uŕte bi ixendatu zan batzoŕdiagaz? ¿Urtu da? Euzko-ikastolantzako ixendatu zan batzoŕdia ez'padaukogu, geure Jel'en agintarijak ¿eztabe aŕteztuko euzkerearentzako dan okeŕ au? Bayetz ustetan dot, iya ba, ainbat lasteŕen egiŕen ba'da.

KIROLAK.—Lasteŕketak jauŕtiketak, ta abaŕ. Igande goxian Elexalde'n ostiko-tokijan ospatu ziran Galdakano'ko umian txapelketea; amalau ta amasei urte biŕaŕtekuantzako, ta beste bat amalau uŕte baño gastiantzako:

Ara emen amalau ta amasei uŕte biŕaŕtekoen txapelketean araba:

80 neuŕkin: 1, Agiŕe (Z.), 11 s. 2-5; 2, Gerediaga (Tx.); 3, Fernandez (Z); 4, Bilbao (Z).

300 neuŕkin: 1, Eŕekalde (B), 49 s. 2-5; 2, Bilbao (Tx); 3, Agiŕe (Z); 4, Fernandez (Z).

Astuneko jauŕtiketa (4 anei-aztakin): 1, Gerediaga (Tx), 9,75 n.; 2, Fernandez (Z) 0,29 n.; 3, Agiŕe (Z), 8,70 n.; 4, Carramiñana (Tx), 8,30 n.

Goi-jauzka: 1, Gerediaga (Tx), 1,25 n.; 2, Fernandez (Z), 1,18 n.; 3, Bilbao (Z), 1,10 n.

Amalau uŕte berantzakuak.

80 neuŕkin: 1, Yuŕebaso (Tx), 11 s. 2-5; 2, Zelaya (Tx); 3, Bilbao (Z); 4, Aldekoa (Z).

Astuneko-jauŕtiketa: 1, Zabala (Tx), 8 n.; 2, Aldekoa K. (Z), 7,60 n.; 3, Aldekoa B (Z), 7,42 n.; 4, Arana (Z), 7,32 n.

Goi-jauzka: 1, Zabala (Tx), 1,15 n; 2, Aldekoa (Z), 1,13 n; 3, Linaza (Z), 1,13 n; Yuŕebaso (Tx), 1,10 n.

300 neuŕkin 1 aldendutzia (eliminatoria): 1, Zelaya (Tx), 51 4-5; 2, Yuŕebaso (Tx); 3, Jugo (Tx).

2 aldendutzia: 1, Aldekoa (Z), 50 1-5; 2, Bilbao (Z); 3, Zabala (Z).

Sei oneik amayan euren indaŕa neuŕtuko dabe.

GOIKOKO.

FORUA

¡Ene Euzkadi maŕia! Gauŕ Forua'n, geure eŕitxu maŕe onetan. Zeure aurka asko esango dabe; zeure ganetik daguala azkatasuna kendu entzun Lateŕija, zeuri ainbeste bidaŕ negaŕ eragin dautzun Lateŕija, ainbeste seme zeu ziñala euren ama bakaŕa autoŕtziagaŕik erail dautzuzan Lateŕija, ainbeste zeuk bijotz-bijotzez maŕe zenduzan semiak bere zaintzen, gudari eruan eta geyago etoŕiko eztiran Laterija... Baña ama, ez egin negaŕik, zeure-aldez negaŕ geuk dagiguta.

Gomutau gaŕian anai euzkotaŕak, arek Euzkadi'ren aldi zorijontzubakin, geure asabak bere-aldez odola ixuri ta mendijak goŕitu ziŕubezan aldijakin, eta gauŕ... eurai bixija kendu eutsoen Lateŕi-aldez euzkotaŕak... euren anayak. Amaŕu-ete ba, euzko-gogua? Amaŕu geure asabeak ganako maŕasuna? Ez, ezta oraindik amaŕu, eurek mendijan ixuri eben odolak, abeŕtzale azijak, eŕne da ta igalijak emon diŕu, igali oneik euzko-gastedijen bijotzak samuŕtu. Biotz gastiak, maŕasun utzez betezik dagozan bijotzak, zeuriak dozuz Euzkadi; ama, Jaungoikua ta zeu gauza gustijen ganetik maŕe zaŕugubez.

Ez, ba, jaramonik egin gauŕ zure seme-galdubak esango diŕubezanai, eztakije zer esaten daben-eta. Azketsi egijozube.

"Viva España!" esango dabe, ta geuk be, "gora" erantzungo dautsegue, eztogu -iñoŕ ilterik gura-ta, baño, lenago negaŕ-malkoz bustiko dira geure begijak. ¿Zeian ba, bijotz nasoyagaz esango dogu gora, ainbeste geure anai maŕeri bixija kendu dautson eta kentzen daguan Lateŕi bateri? Eta zelan, geure amaren zorijon gustija kendu dautson bateri? Negaŕ egingo dogu bai lenengo, negaŕ...

NASKALDIJA.— Agiŕe-Gomezkoŕta'taŕ Miren irakaslemia, osagiliaren aginduz atzeden apuŕ batzaŕtzen etxeratu da. Ainbat ariñen eta onduen osatutia opa dautzut.

Bere utzuna betetan, eŕi onetako irakaslemia dan Lekuona'taŕ Miren Terese neskatila gastia jaŕi da. Leŕo labuŕ onen biŕaŕtez emon gura dautzut neure zorijon-aguŕik sutzubena, zeure ikastiak ain aŕigaŕikiro baxen gasterik amaŕu dozuzalako Zeuk daukozun bixipide oŕetan, Euzkadi-aldez lan asko egin ziñake, ta eztot uste ukatuko dautsazunik, zeure abeŕtzaletasun sutzuba ezaguturik Aŕtu ba, neure zorijon-aguŕa.

IBAI-GANE.

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5. 3.º. DONOSTIA

NARTII CREPA
Begiyetako gaixoen sendagillea
... 12 bis 2.º DONOSTIA

Erlojuak ondo ta merke atonduten dira. ...ar barijal saldu be.
Clea'dekoa'tar Danel
Artekale, 40.—Bilbao

Etorkunde Osteko XIX Igandia

SAŔKUNA. Neu naz eŕijaren gaizkabidia, diño Jaunak; edozein loŕalditan dei ba-dagiste, entzungo dodaz, ta euren Jauna ixango naz betiko.

(77'g. Er.). Ene eŕi ori: entzun nire lagija; nire abotiko itzak dirala-ta, adi agokit.

Aintza... Neu naz eŕijaren...

OTOYA. Algustidun Urtzi eŕukijoŕ ori: kaltegaŕi yakun edozerbere gugandik adeiberaz aldendu egizu, gogoz ta gorputzez jarei ixanik, zeure gurea oldez betatu daikeguntzat. Amaibako egunetan zeu ta Goteuna'rekin batez bakaldun bixi dan zeure Seme Josu-Kisto gure Jauna dala bide.

IDAZKIJA. Paul Beldu deunak epesotaŕai egindako Idazkiko irakuŕgaya (4, 25-28).

Anayok: Gogo-senez baŕiztu zadiŕeze, ta Urtzi'ren ereduz benetan zintzo ta deun egindako gixaki baŕijaz jantzi. Oŕetarako, guzuŕa bazteŕturik, bakotxa bere geidiari egin mintxo bekija, alkaŕen atalkide gara-ta. Asaŕetu-aŕen, ez obenik egin; ezpeike eguzkija etzaun oraindik asaŕe zaraela. Txeŕenari ez emon elbiderik. Ostu leroyanak ezpeike geyago ostu, eskulanari ekin baño, opariñetan dagonari nundik emon eukiŕeko be.

MALAGUNIA. (140'g. Er.). Nire otoya eure ageŕijan kedatza lez bigo, Jauna. I. Nire esku-jasopena aŕatsaldeko eskeintza lakua bedi.

Aleluya, aleluya. (104'g. Er.). Goretsi egixube Jauna, ta bere ixena oles-egin; bere egintzak atzeŕijai iragaŕi eiskiezubez. Aleluya.

GOIZPAŔKIJA. Matai deunaren arauzko Goizpaŕ-jaŕaikuna (22, 1-14).

Aldi aretan: Josu'k jaupari nagusijai ta parixetaŕai alegi-bidez itz-egiŕen leutsen, onetara: Goi-ala, semiari eztegubak egin leutsazan gixon bakaldunari antzaldu yaka. Bere otseñak bazkaldijaŕak eztegubetara dei bidaldu leuzan, baña, deŕubak etziran etoŕi nai ixan. Baŕiro beste otseñak igoŕi leuzan, auxe esanda: Bazkaldijaŕai onan irautsi: ona, gertu dot nire bazkarija; zezenak eta iŕelak ilda dagoz, ta gustija gertu: zatoŕkeze eztegubetara. Areik, baña, jaramonik ez: eta urlija bere imatzera ta berendija bere saleroskеtara jun ziran; garaikuak, baŕiz, aren otseñak oratu, ta iraindu, ta erail egin lebezan. Bakalduna, entzun lebalarik, aseri-sumindu egin zan; eta bere gudaltaldiak igoŕi, ta gixerale areik sakabanatu egin leuzan, eta euren urija be sutau. Arian bere otseñai: Eztegubak gertuta dagoz, bai; bazkaldijaŕak, baña, etziran eurotarako ixan. Zuaze, ba, bide-burubetara, ta jaŕugiko daikezubezan gustijai eztegubetara dei-egin. Otseñak bidietara urten ziran, eta jaŕugiriko gustijak, onak eta gaiztuak, batzaldu lebezan; eta eztegubak bazkaldijaŕez bete egin ziran. Bakalduna bazkaldijaŕak soroztеn (ikusten) saŕtu zan; eta eztegu-soñekoz jantzijeztako iñorbat sorotzi leban. Adizkide, esan leutsan, ba, ¿nolan saŕtu az ona eztegu-soñekoz jantziŕeka? Arek, baŕiz, tautik bez. Arian bakaldunak otseñai: Oni esku-oñak uzkali (lotu) egin, bai?, ta lekoreko ilundira jauŕti eikezube: bai-dira an ixango negaŕa ta agin-ziŕija. Asko dira, ba, deŕubak; gitxi, baña, autetsijak.

OPAKUNDIA. (137'g. Er.). Jaunoi: loŕaldijan ba-nagoke, azkoŕtuko nok; nire arerijo suminduben kaltez eure eskuba luzatu, ta gaizkatu egingo nau eure eskumeak.

OTOI IXILA. Aŕen-dagitzugu, Jaun oŕi: osasungaŕijak bekiguz Goiko oŕen begijetara guk auŕkezturiko oparijok. Amaibako...

JAUNAŔTZAKUA (118'g. Er.). Eure agintzak zietz-zietz betatuteko agindu dok; eure lagi-muga baŕuzko bidietaz ibiliko al naz!

JAUNAŔTZOSTEKUA. Zeure erazo dura osasungaŕijak, Jauna, zeure eŕukija dala bide, gure gaiztakerijak txautu, ta zeure agindubai betiko lotu gagiskiezala. Amaibako...

ERABAKIJAK. Donokiko eztegubetara deŕu nau Jaunak. Eztegu-soñekua, baŕiz, goi-eskaŕa da-ta, enaditen egundo soñeko au barik ixan.

Jaunaŕtzeko, be, soñeko au biaŕezkua dot.

ATAŔIZBAŔNA.

Bermeo'tik Lekeitio'ra

Oraingo domekan geure udalak ordaindutа ezpatadantzari ta gorularijak juan gara Lekeitio'ko eŕira.

Goxeko zortziretan neskatil eta mutikuak Batzoki-auŕian batu eta Saŕrer gurbidil andi bitan sartu gintzan. Baten neskak eta bestiak mutilak. Beingo baten Gernika'ra eldu gintzan eta berton ikusi gendun Gernika'ko zugatz edo aŕbola zaŕa ta baŕija bere bai. An ziran ainbat ezpatazaŕ, eskopeta, kuadru eta osterantzeko. Gernika'n gixon batek eŕetratau genduzan.

Ostabe gurdibilan saŕtu eta Lekeitio'ra eldu gintzan amabijetan. Lenengo batzokira juan gintzan eta berton bazkaldu gendun baita kape-esnia artu, portuba ta parkia ta ondartza ikusi genduzan. Ondaŕtza onetan erakutsi euskuben aitz txikitxu bat Atxike-mokordo ixena daukona. San Nikolas-ugarte edeŕa be an zan.

Gero soka-dantzan egin gendun. Eŕi onetan esaten dautse gure txakuŕ-andi dirubari txori-andije eta txakuŕ txikijari txori-txikije. Emengo euzkerie poliŕa da.

Lekeitio'n geu lako mutiltxu txiki eta abeŕtzaliak ezagutu ta eurekaz lagun egin gara euron ixenak dira Pedro Jazinto eta Ixak.

Ilunduta autuban saŕtu ta gaberako geure Bermeo'ra eldu gintzan, geure gurasuekana. Egun ona pasau gendu eta uŕengo aŕte.

Txaluak Laŕinaga'taŕ Iñaki eta Poli anayai geure maxu ta txistulari onai. Eta eskeŕik asko geure Udal edo Ayuntamentuko jaunai. Gora Lekeitio, Gernika ta Bermeo.

Bilbao-Auŕekoetxea'taŕ Kepa eta Gaubeka-Azpiri'taŕ Pantzeska. Bermeo'ko ezpatadantzari txikijak.

Uaŕa.—Mutiltxu poliŕok: auxe da benetako abeŕtzaletasuna. geure euzkerea ondo kasi ta erabili Zebek lako semiak daukozan abeŕija ezta galduko. Iaŕai maŕiok idazten, pozik argitalduko doguz-eta.

LAUAXETA.